

4. eranskina. Chernobylgo egoera gaur egun

2020. urtean gauden honetan, Chernobylgo zentralaren eta eskusio eremuaren egoera zein den aztertuko dugu.

1986. urtean, suntsituta geratu zen laugarren erreaktorean zeuden hondakinetatik ingurumena babesteko asmotan, Chernobylgo laugarren erreaktorea estaltzen zuen sarkofagoa eraiki zen. Sarkofagoaren diseinua 1986ko maiatzaren 20an hasi zen, eta urte bereko ekainean ekin zitzaion sarkofagoa eraikitzeke lanei. Sarkofagoa eraikitzeaz gain, 400 meatzarik egin zuten lanari esker, erreaktorean zegoen erregai nuklearra hozteko lauza zabal bat eraiki zen erreaktorearen beheko aldean. Guztira, 206 egun behar izan zituzten sarkofagoa eraikitzeke. Hala ere, 1996. urtean, sarkofagoa estaltzen zuen beste ontzi seguruago bat eraikitzea erabaki zen. Sarkofago berria erreaktoretik 300 metrora hasi ziren eraikitzen 2002. urtean, eta 2016. urtean, bukatu zuten 110 metro garaierako, 165 metro luzeko eta 260 metro zabalera sarkofagoa. Hori horrela, 2016. urtean, erreaktorea eraikuntza berriarekin estali zuten. 2019ko uztailean, sarkofago berriaren lanak guztiz bukatutzat eman ziren. Honako irudi honetan ikus daiteke sarkofago berria [1]:



1. irudia. Chernobylgo laugarren erreaktorea estaltzen duen sarkofago berria

Chernobylgo hondamendiak izan zuen eragina eskusio eremuan nabari daiteke. 1986. urtean, erradiazio altuko eremuak hustu ziren, guztira 116 000 pertsona inguru beraien bizilekuak uztera beharturik [2]. Gaur egun, eskusio eremua animalia eta landareen parke naturala bilakatu da, eta bertan familia gutxi batzuk besterik ez dira bizi. 2020ko apirilean, Chernobylgo eskusio eremuan zenbait sute piztu ziren. Horren ondorioz, apirilaren 1tik 22ra bitartean, guztira 400 GBq ^{137}Cs , ^{90}Sr , ^{240}Pu eta ^{241}Am askatu ziren ingurunera, istripua gertatu zenean baino bilioi bat gutxiago. Bertan bizi diren familiek eta sua itzaltzen jardun

zuten suhiltzaileek $15 \mu\text{Sv}$ baino dosi txikiagoa jasan zuten, hau da, urte batean baimenduta dagoen muga baino askoz txikiagoa (0.05 Sv) [3].

2019. urtean, HBO plataformak Chernobylgo hondamendiaren inguruko telesaila estreinatu zuen. Hori dela eta, azken urteotan Chernobylgo istripuaren inguruko interesa mundu osoan zabaldu da, eta turismoak nabarmen gora egin du Chernobylgo eskusio eremuan. Chernobylgo eskusio eremura bidaia modu kontrolatuan egin daiteke soilik, eta gehienez astebeteko bidaia egin ahal da [4]. Horrenbestez, Chernobylgo eskusio eremua munduko turistek helmuga berria bilakatu da.

Bibliografia

- [1] <http://www.chernobylgallery.com/>.
- [2] V Saenko, V Ivanov, A Tsyb, Tatjana Bogdanova, Mykolo Tronko, Yu Demidchik, and Shunichi Yamashita. The chernobyl accident and its consequences. *Clinical Oncology*, 23(4):234–243, 2011.
- [3] Nikolaos Evangeliou and Sabine Eckhardt. Uncovering transport, deposition and impact of radionuclides released after the early spring 2020 wildfires in the chernobyl exclusion zone. *Scientific Reports*, 10(1):1–10, 2020.
- [4] <https://www.chernobyl-tour.com/english/>.